

## Zubigile bat galdu dugu

Mikel Atxaga

*Deia. Diario de Araba, 2004-10-05: 50.*

Kazetari, eta idazle, euskaltzale eta abertzale genuen Martin Ugalde. Alderdigintzari eta alderdi bateko eginkizunei muzinik egin ez zien idazlea, alderdikide izateak alderdikieriaz jokatzera behartu ez zuen politikoa eta gerrak, diktadurak eta atzerriak zapuztu eta etsi ez zuten gizona. Bere alderdi bat bakarrik aipatuko dut: zubigintza. Bere izaerak, euskaltzaletasunak eta abertzaletasunak zubigile izatera behartu zuten. Frankistek ereiten zuten hazi txarrari kontra egiteko Euskal Herriaren eta euskaldunen berri ematen saiatu zen, Venezuelan bizi zenean eta Euskadira etorritakoan. Euskaldunei buruzko iritzia erdaldunen artean eta munduan zehar bere onera ekartzea bakarrik ez zen aski. Elkarrengandik sakanabatuak geunden euskaldunok itzuli zenean. Aurrekoen berririk gabe hazi ginen belaunaldioi gerra aurreko belaunaldiaren berri eman zigun, biak lotu nahia. Euskararen idazkera zela eta, euskaltzaleen haserreak goxatzen saiatu zen, joerak hurbiltzen. Bortizkeriaren kontra azalduz ere, abertzaleen arteko etenak konpondu nahi izan zituen. Zubigintza hori ez da neke eta saminik gabe egiten. DEIAra jeltzale ez ginenok eta batua onartua genuenok eraman gintuenean ere izan zuen gorabeherarik. Euskarazko egunkariaren inguruko, hasierako, tarteko eta azkeneko, jokabideetan ere izan zuen burukomin bat baino gehiago. Baina gorabehera guztien gaintetik, beti aitortuko eta eskertuko zaizkio bere guztizko euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna. Euskal Herriarekiko maitasunak ekarrarazi baitzuen Venezuelako bizimodu erosoagotik Euskadira eta euskaraganako maitasunak behartu erdal idazletza erosoagotik euskal idazletza erosoagotik euskal idazletza neketsuagora. Eskerrik asko, Martin.